

Atxabaltarra, soziologia irakasle da Leeds-eko unibertsitatean

Imanol Galfarsoro, biharko hizlarien artean

Bihar (asteazkena), arratsaldeko 19:00etan, hitzaldi interesgarri bat izango dugu Kulturaten, "Arrazonamendu politikoa berreraikitzea, askatasunerako arma bat" izenburua daramana. JOSEBA ARIZNABARRETA, AITZOL ALTUNA eta IMANOL GALFARSORO izango dira hizlariak.



Antzeko mahai-inguruak ospatu dira udazken honetan Donostian, Iruñean eta Gasteizen ORREAGA Politikarako Iritzi Taldearen eskutik. Arrasateri iritsi zaio orain txanda.

Hizlarietako batekin egon da Mondraberrri, IMANOL GALFARSOROrekin. Atxabaltarra da bera eta urte askotan diasporatik jarraitu ditu euskal arazoaren nondik norakoak.

L.L.A/ Mondraberrri, 2008ko abenduaren 9a.

Zenbat urte daramatzazu Euskal Herritik kanpo eta nondik nora zbiltza?

Hogeitabost urte eta piku luzea. Hasiera batean Frantzian eman nituen urte batzuk eta gero Ingalaterran, 15 urte Londresen bizi ondoren orain Liverpoolen nago.

Zertan egiten duzu lan... eta lanetik kanpo zer saltsatan ibiltzen zara?

Momentuan Leeds-eko Unibertsitatean nabil, Soziologia sailean hasi berri. Leeds Liverpooletik nahikoa gertu dago eta aspaldi denik *on and off* doktorautzarekin borrokan ibili ondoren, aukera ederra eman didate bertan jarraitzeko eta eskolak emateko. Liverpoolerako unibertsitatean nengoenean hasi nintzen parte hartzen Leeds-eko bi ikerkerta taldeetan, *Zizek Ikasketak-Nazioarteko Aldizkaria*-n (<http://zizekstudies.org>) eta *Ikasketa Subalterno* kolektiboan (<http://subalternstudies.com>), eta aurtengo kurtso akademikoan hara mugitu naiz. Gero Londresera ere hurbiltzen naiz ahal dudanean.

Londresen, Euskal Elkartekoekin harremanak ez ditut inoiz galdu eta oraintxe bertan badago beste talde antolatu berri bat, *Basque Solidarity Campaign* (<http://basquesolidarity.blogspot.com>). Beraz triangelu baten mugitzen naiz: bizi Liverpoolen, emaztea eta hiri seme-alabekin, (ikerketa-)lanak Leeds-en eta lan politikoa leku guztietan, baina modu antolatuan batez ere Londreseko euskaldunekin.

Bizi zaren tokitik, zelan ikusten duzu Euskal Herria?

Galdera hau sarri jasotzen dut. Galderak berak inplikatzan du Euskal Herriari begira badagoela barru bat eta kanpo bat. Geografikoki hala da noski, baina borroka politiko batean kontzienteki engaiatuta zaudenean ez dago barru edo kanporik. Barruan zaude leporaino.

Barruan zaude nahi eta ez, adibidez, zerbitzu sekretuentzat ez dagoelako mugarik eta beraien presentzia mamutsua beti kolko atzekaldean sentituko duzulako, presentzia benetazkoa izan ala ez, piszina haurrekin zaudenean, baita etxean ere, emaztearekin berriketan edo zarataka edo zuk esan zeretan. Eta gainera barruan zaude, adibidez, Londreseko lagun bati gertatzen zaion bezala, bere ahizpa kartzelan Parisen dagoenez, errazago egiten zaiolako, eta merkeago, hamabost egunero bisitak egitera joatea Bilbotik gurasoei baino. Euskal Herria, orduan, barrutik ikusten dut.

Zer egin dugu gaizki, gure egungo egoera politikoa hain aldrebesa izateko?

Erantzuna “dugu” horretan “gu” hori zein den arabera dator. Guk, askapen mugimendukook ez dugu ezer gaizki egin eta niri behintzat egoera politikoa aldrebestzat antzematea ez zait batere ezkorra iruditzen. Ba al dago berez aldrebesa eta korapilotsua ez den egoera lau edo zuzenik?

Oinarrian ‘egoera aldrebesa’ hitzen opositoak, hau da, ‘egoera egokia’ fantasiazkoak zirkuitulaburtzen du galdera, alegia: berez ezinezko den amets ‘liberal-demokratiko’, ‘pluralista’, ‘kulturanikoitzak’ eta bereziki hemen, fantasiazko eremu horretan lantzen den sasi-moralitateak: ‘bakea’, ‘tolerantzia’, ‘bestearen errespetoa’...

Zentzu horretan, gu, askapen mugimendukook, ‘bikain’ notarekin gainditu ditugu azterketa etikoa eta politikoa. Azterketa etikoa, banan-banan eta gure bakardadean konfrontatzen ditugulako gure barneko monstro eta deabruak, gure mugimenduaren gorputz politikoan bertan eta barnebarnean kokatuta dagoen ‘patologia biolentoaz’ ondo jakinaren gainean gaudelako. Ez inguruan aurkitzen ditugun, eta batez ere bailara honetan, makina bat arima polit, xalo, eta errugabeek bezala, Ongia eta Gaitza zer denari buruz publikoki pontifikatzen sexurik gabeko aingeru zerutarren legez. Baina azken finean eta zer nahi dela esaten dutena ere, etsaiaren lan zikina zurutuz:

Ilegalizazioaren kontra daude, noski, baina ez daukate inolako arazorik lege horren harira lapurretan ibiltzeko; torturaren kontra daude, zein ez dago! baina torturatzaileak babesten dituzte bozkatzen dituzten mozioetan; presoak hurbiltzeko banderolak jartzen dituzte udaletxeko balkoietan, nola ez! baina aldi berean preso berauen biolentzia salatzen beste banderola bat ezarriz aldamenean: humanitarioak dira, orekatuak dira, are alternatiboak eta heterodoxoak eta toleranteak eta irekiak.

Ez dira konturatzen, ez dute konturatu nahi galtzaile hutsak direla, kateatu egin dutela azterketa politikoa bera ere. Izan ere, (1) gure menpean osoki bizi direlako, irauteko gure beharra daukatelako, edo bestela zer egingo lukete gu 'inhumanoak', 'maximalistak', 'ofizialak', 'ortodoxoak', 'intoleranteak' eta 'hertsiaik' ez bagina? Are eta gehiago, azterketa politikoa kateatu egin dute eta borroka politikoa bera ere galdu (2) makina bat urte eta hamarkada pasa ta gero, askatasunaren ildo oraindik ere guk jorratu eta markatzen dugulako, eta, horretaz gainera, noski, askatasunean bertan bortxa eta koerzioa inskribatuta daudela ere ondo jakinaren gainean gaudelako. Edo ba al dago norbait pentsatzen duenik euskal estatu independentea zerbitzu sekreturik gabe antolatuko denik?

Gure egungo egoera politiko aldrebasa gainditzeko irabazi egin behar dugu, hain zuzen ere, hortik sortuko den egoera politiko hain aldrebésaren jabe izateko eta ez morroi.

Orreagak mahai inguru honetan parte hartzeko gonbitea luzatu zizunean zergatik esan zenuen baietz?

Oraintxe puntuan Pamielan argitaratu didate liburu bat. Izenburua "Subordinazioaren Kontra" da, eta bertan sarri aipatzen dut Joseba Ariznabarretak ihaz argitaratu zuen liburu garrantzitsua: "Pueblo y Poder". Garai baten, nire Almen-eko eskola denboran, Ariznabarreta filosofiako irakaslea zen. Orain Orreaga Iritzi Taldeko sustatzaile da. Mahai inguru batean berarekin parte hartzeko gonbitea jaso nuenean ez nuen segundu bat ere pentsatu. Gero, badago beste hizlari bat mahai inguruan parte hartuko duena, Aitzol Altuna. Ez dakit zehatz zertaz arituko den, baina euskararen historian aditua dela irakurri izan dut nonbait, batez ere euskararen murrizte geografiko prozesua ikertzen duelarik mendeen zehar.

Orduan suposatzen dut zenbait gai ezberdin aztertu, edo behintzat, aipatuko direla. Ariznabarretak, adibidez, zera esaten du bere liburuan: "*Los pueblos, a veces, mueren por extenuación, a lo largo de un camino que no conduce a ninguna parte*". Nik neuk, alderantziz, argudio guztiz kontrako hau luzatuko diot, alegia: herri ausarten eskubidea dela hiltzea edo desagertzea. Hain zuzen ere, Estatu politikoa (independentea) jaioko den hein berean hilgo dela herri kulturala (subordinatua), eta ingelesez esaten den bezala, nik behintzat: *I can't wait! The sooner the better!* Zeren eta honera etortzen naizen bakoitzean ezin ditut pairatu gaur egun hemen nagusitu diren erregionalismo txobinistaren huskeria folklorzale eta arruntkeria etnizistak.

Lehen txokolatzeko *conquitos*-ak jaten genituen, orain, euskal tehistako aurkezle belarritakodun modernotxo batek esanda irentsi egin behar dugu "hunkigarria" dela, lan humanitarioaren gisan ezkututzen den inperialismo berriaren emaitza, eta hunkigarria zergatik, bada hor nonbait Congoko basamortuan norbait ibili delako hilabete batez, bi hilabetez, hiru agian... haur batzuei Athletic-en himnoa irakasten, baina kontuz gero e! euskarazko bertsoan!

Esaten dizut, Euskal Herriko lehen gobernu independentaren lehen kultur-zeregina izango da "Vasquitos y Nesquitas" bonboiak egiten duenari nahikoa eta sobera diru laguntza ematea behingoz eta betikoz merkatutik erretiratu ditzan. Hori bai dela 'apostu estrategikoa', 700€ miloitik ondo gora ordaintzea mereziko duena, kontua ez baita Kepa Junkerak diru laguntza hori zergaitik bai eta beste gainontzeko guziek zergatik ez! Kontua da, musika edo fusio etnikoa gustatu ala ez, gaur egun babesten eta mimatzen den kultura etniko petral hori gure horizonte politikotik desagertu egin beharko dela.

Beste hitz batzuetan esanda: beste estatu libre eta independenteak bezala izan nahi badugu, kultura etnizista horrek bere leku marginala edo erresiduala okupatu beharko duela, eta ez dominantea gaur egungo erregionalismo subordinatzaile eta subordinatuarekin gertatzen den bezala.

Abertzaleok galdu ezin dugun zita bat dela diote. Zer ekarpen egingo digu abenduaren 10eko mahai inguruak?

Nork dio halakorik? Beldurtzen nau. Ez, barkatu baina nire aldetik behintzat, kultur-azterketak edo proposamenak halakoak edo bestelakoak izanik ere, mezu politiko orokorraren muina ez da inolaz ere berria izango. Zaharrak berri! Zentzu horretan argudiatuko dut ez dagoela zertan asmatu beharrik jadanik badagoena, alegia, tradizio politiko, kultural eta intelektual bat, askapen mugimenduarena, askatasunera lideratuko gaituena. Beste aldera argudiatuko dut zeregin intelektual kritikoa ardatz dugunontzat, gure eginbeharra ez dela arazoei erantzunak edo soluzioak ematea, arazoak sortzea baizik. Lenin-ek esaten zuen bezala, gure eginbeharra “pentsatu, pentsatu eta pentsatu” da. Zentzu horretan lan intelektualetan ari dena mago txar bat bezalakoa da, txistera bat badu baina untxirik ez! Horregatik militante gisa praktikara begira, eta gainera gaur egun inoiz baino gehiago, lidergo politikoak esaten duena goitik behera jarraitzea besterik ez dago, hau da: disziplina, disziplina eta disziplina!

Slavoj Zizek filosofo sloveniarrak dioenez *“errotik errefusatu beharko genuke disziplina eta antolakuntza militantea ezaugarri baztergarriak direla, autoritarioak, hierarkikoak, militaristak etabar. Halako gauzak esaten direnean ez da deusik esaten, baten jakineztasuna maskaritzen duen zehazgabeko asoziazio iluna adierazten baizik. Espontaneitatea eta askatasun gehiegietan disfrutatzekeo jarrera lasaka, baliabideek dituztenen prerrogatiba da. Ezer ez duenak, aldiz, disziplina du soilik”*.

Eta, gaur egungo egoeran, beraz, guk ez daukagu ezer disziplina baizik. Baliabidez beteta dauden diseinozko abertzale progre eta multikulturalistekin eztabaida heterodoxo eta toleranteetan aritzeko asmoa dudala uste duenik badago, jai dauka! Hobe du ez agertzea!

Ezagun askorekin elkartuko zara Arrasaten. Zelan eragiten dizu horrek?

Egia esanda, ez dakit. Nire burua ezagutuz, suposatzen dut hasiera batean nahikoa urduri ibiliko naizela baina moldatuko naiz. Eta pentsatzen dut hitzaldiaz aparte, izango dugula gero astirik aspaldiko partez honetaz eta besteaz aritzeko.